

MIKEL LABOA

Mikel Laboa Donostian sortu zen 1934ko ekainaren 15ean eta Donostian 2008ko abenduaren 1ean hil zen. 74 urtez bizi izan zen.

Medikuntza ikasi zuen. 1953/1954 ikasturtea Madrilen egin zuen. Handik Iruñera joan zen eta han berreskuratu zuen euskara. Iruñean egin zuen bere lehen kontzertua ere, erdaraz, Gaiarre Antzokian izan zen. Laboak miresten zituen musikarien kanta jo zituen: Brassens, Atahualpa Yupanqui, Violeta Parra, The Beatles...

Iruñetik Zaragozara joan zen ikastetekin segitzera. Han eman zuen lehendabiziko kantaldia euskaraz, 1962an.

Bartzelonan ezagutu zuen "Nova Cançó" mugimendua.

"Ez dok Amairu" taldekoa izan zen.

Kantu ospetsuak: Txoria txori, Gure Bazterrak, Lili bat, Lekeitioak, Sorterriko koplak, Izarren hautsa, Haika mutil ...

Mikel Laboa izeneko katedra sortu zuen bere omenez Euskal Herriko Unibertsitateak.

Kanta. Txoria txori

<https://www.youtube.com/watch?v=SM87II1P3Gc>

Txorioa txori (Letra)

Hegoak ebaki banizkio
Nerea izango zen,

Ez zuen aldegingo.

Hegoak ebaki banizkio

Nerea izango zen,

Ez zuen aldegingo.

Bainan, honela

Ez zen gehiago txoria izango

Bainan, honela

Ez zen gehiago txoria izango

Eta nik...

Txoria nuen maite.

Eta nik...

Txoria nuen maite.

Hegoak ebaki banizkio

Nerea izango zen,

Ez zuen aldegingo.

Bainan, honela

Ez zen gehiago txoria izango

Eta nik...

Txoria nuen maite.

La la la la la la...

Egileak: Xabat Maritxalar eta Eider Zamora